

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Osteguna, 2011ko uztailaren 21a. VIII. urtea. 2.261. zenbakia. tolosaldea.hitza.info

Xabier Zeberio Musikaria

«Diskoko materiala nahiko berezia da, oso melodia arkaikoak dira»

Azken hamalau urteetan Oskorri taldean aritu da tolosarra biolina eta nyckelharpa jotzen; 'Dantza kontra dantza' lana atera berri dute 02

Koldo Alonso moto gidari ibartarra bigarren doa Zona Norte Txapelketan

Irailaren 3an Nafarroan izango duen lasterketa arte atsedean hartuko du; lehiaketako Series 600 mailan hartzen du parte, eta orain arte erregularatasuna erakusten ari da 06

Santioetako danborradako zapia, jaiei nortasuna emate bidean

Villabonan urtero atera izan dute zapia burrunbarekin bat eginez, eta aurten, arrakasta ikusita, jai egun guztietara zabaldu nahi dute lepokoa ematea 04

Tolosako Hodeiertz habanera lehiaketan izango da

Nazioarteko txapelketa Torreviejan izango da; abesbatzako kideek bost kanta abestuko dituzte, tartean Hodeitrukeko zuzendariaren bi 03



L. GARCIA

→ **Kirola eta abentura bat eginik.** Abaltzisketa, Altzo, Amezketa, Balarriain eta Orendaingo haurrek Bizi Biziki enpresak antolatutako kirol eta abentura udal-ekuetan ari dira parte hartzen. Atzo Altzon izan ziren eskalada eta patinaje ikastaroa egiten, eta bihar piraguan ibiltzeko aukera izango dute Urumea ibaian. 05




Zuen bisitaren zain gaude.
Eskerrik asko!

Villabonako Jubilatuena Taberna

Herriar guztientzat zabalik
10:00etatik 22:30era.

Bokatak, razloak,
plater konbinatuak eta menuak
eskaizten dizkizugu.



Aldude kalea 3 behea • Villabona • Tel.: 943-69 49 19



I. GARCIA

Xabier Zeberio ◊ Musikaria

Oskorri musika taldeak 'Dantza kontra dantza' izeneko diska kaleratu berri du. Xabier Zeberio tolosarrak hamalau urte daramatza taldean biolina eta nyckelharpa jotzen.

«Buruari buelta asko eman dizkiogu pieza arkaiko hauek moldatzeko»

Itzea Urkizu

Xabier Zeberio (Tolosa, 1978) duela hamalau urte inguru hasi zen Oskorri taldean jotzen. Biolina eta nyckelharpa jotzen ditu, eta zenbaitetan ahotsa ere jartzen du. Taldeak argitaratu berri duen *Dantza kontra dantza* diskaren inguruan aritu da TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAREKIN.

Zuen lan berrian dantzarako doinuak landu dituzue. Kontatu XVIII. mendekoak diren doinu hauekin nola egin zenuten topo.

Taldeko partaideei, duela 40 bat

urte iritsi zitzaizkien partitura hauek, eta egia esan, oso doinu bereziak, arraro samarrak, irudituz zitzaizkien. Urtetan zehar partiturak hor eduki eta gero, konturatu ziren esku artean zituztenak Iztuetaren partiturak zirela, Zaldukiako dantza maisu handi batek. Garai bateko Gipuzkoako dantza zaharrak ziren. Horietako batzuk gaur egunera arte iritsi dira, baina beste asko, gehienak, galdu egin dira bidean. Gauzak horrela, proiektu polita izan zitekeela irudituz zitzaizgun, doinu arkaiko horiek hartu eta gure mo-

dura jarriz, Oskorriren ukituarekin eta soinuarekin. Esan bezala, dantzak guztiz galduta zeudenez, aukera polita irudituz zitzaizgun Baztango dantzariekin batera, pauso berri batzuk sortzea, *Mutil dantzan* eta *Muxikoetan* oinarrituta, melodia hauek jende guztientzat dantzarari egin, eta berri ere plazara ateratzeko.

Natxo de Felipek diska berria Oskorriren lanik sakonenetarikoa izan dela aipatu du. Nolako izan da partituretatik abiatuta, amaierako doinuetara heltzeko prozesu hori?

Materiala nahiko berezia da, oso melodia arkaikoak dira. Tempo eta erritmoetan abesti guztiek nahiko antzekotasuna dute. Pieza hauek gure estilora, doinu modernoagoetara emateko, buruari buelta asko eman behar izan dizkiogu; bai timbre berriak sortzeko, bai nabardura moderno batzuk lortzeko, eta azken finean, melodiari beste ikuspegi gaurkotuago bat emateko. Egia esan lana nekeza izan da, nahiko luzea. Baina emaitzarekin oso pozik gaude.

DVD bat ere grabatu duzue. Plazetan dantza egiteko ohitura hori sustatzeko helburua izan al duzue?

Alde batetik esan daiteke baietz. Dena den, gure proiektuaren oinarria musika da: kantu horiek hartu eta gure modura plazaratzea. Gero horri, jendeak edo herriari dantza horiek modu erraz batean dantatzeko aukera gehitzen baldin badiogu, hobeto. Dantza bat grabatu dugu DVDan, Euskal Herriko hiriburua guztie-

«Gure proiektuaren oinarria musika da; dantza gehigarri moduko bat izan da»

tan, dantza koadrila handi batekin, eta horrez gain proiektuaren azalpen bat ere sartu dugu, dokumental txiki moduko bat osatuz. Era berean, pausoen azalpenak ere badira, ikasi nahi duenak modu erraz batean egin dezan. Iparraldean eta inguruetan, horrelako dantzak azken urteotan indar handia hartzen ari dira, eta harez gain, gure diskoko antzeko melodiak plazaratzen baldin baditugu, aukera gehiago izango dira dantza egiteko.

Diska honekin aurreikusitako emanaldiak, beraz, plazetan izango al

dira jendeak dantza egin ahal dezan?

Udako emanaldiak kanpoan, kallean, eskaintzen ari gara. Gero ez dakit nola moldatuko garen barrurako ere, baina esan bezala, dantzaren puntua gehigarri moduko bat da. Guk abesti hauek dantzarik gabe ere defendatu nahi ditugu, pieza normal batzuk direlako. Dantzak izan arren, Oskorri bere erreperatorioan hamaika dantza dauzka, eta aretoetan ere jotzen ditugu hauek. Ondo legoke jendeak dantza egiteko aukera izatea, baina moldatu gaitezke, eta erreperitorioa ere nahiko malguga daukagu alde horretatik; bai barrurako eta bai kanporako moldatzeko aukera ematen digute abestiek.

Partitura arkaiko hauek doinuak Oskorriren erara landu dituzela aipatu duzue. Horrelako kasuetan non jartzen diozue muga sormen propioari?

Egia esan, guk halako fantasia bat ematen diogu gure lanari. Melodia hauek gure eskuetara iritsi zaizkigu, eta bere horretan mantendu ditugu, baina melodiak bakarrik. Horren ondoren, sekulako aldaketak eta moldaketak egin ditugu, inongo mugarik gabe eta gure imaginazio guztia martxan jarrita. Argi eta garbi esan behar da, ez dugula guk tratatu historikorik eta antzekorik egin abesti hauekin; guk material bat hartu dugu, gure moduko disko bat egiteko. Ez dakigu garai batean zehazki nolakoak ziren abesti hauek, eta nola dantzatzen ziren. Beraz, partitura hartu dugu, eta askatasun osoa hartu dugu gure modura moldatzeko, Oskorri beti egin izan duen bezala; bakoitzak bere ekarpena eginda, ahalik eta disko osoa lortzeko.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Azken urteetan bezala Ibarako jaietan helduen danborrada egongo da. HITZA

Ibarako jaietako danborrada sendotzen jarraitu nahi dute

Izena emateko zerrendak Zubiaurren, Atarin, Subegin eta Danon Txokoan jarri dituzte

Asier Imaz Ibarra

Azken bi urteetan bezala, aurtengo Ibarako jaietan ere, helduen danborrada egongo dute abuztuaren 24an, hau da, haurren danborradaren egun berean.

Danborradan izena emateko aukera zabalik dago jada, herriko

hainbat tabernetan horretarako zerrendak jarri baitituzte. Zubiaurre, Atari, Subegi eta Danon Txokoan eman daiteke izena.

Danborradan irteteko erabakia hartzen dutenek egunean bertan egongo dute aurrekusten duten entsegu bakarra. Ondoren, herriko elkarteetan afalduko dute, 15 euroren truke. Indarrak hartuta, herriko plazara joango dira 22:30ean, danborradari hasiera ematera. Ohiko ibilbidea egin ostean, plazan joko dute azken pieza.

Izena ematerako orduan, beraz, ez dira afariko 15 euroko or-

daindu beharko, diru bilketa, abuztuaren 24ko entseguan egingo baitute.

Jantziei dagokienez, bi aukera egongo direla azaldu dute antolatzaileek: «Jantzi tradizionala edo berdea dutenek, komeni da berarekin joatea. Ez dutenek, alkan-dora txuria, mahoizko galtza, txapela morea eta abarkak eraman beharko dituzte». Aurtengo danborradan karroza ateratzeko aukera aztertzen ari dira, ibilbidean egarri denarentzat edaria gertutik gertura izateko.

Azkenik, herritar guztiak gonbidatu dituzte izena ematera.

Jauregiren monolitoari egindako eraso aztergai, osoko bilkuran

Tolosako Udalak ohiko osoko bilkura egongo du hilaren 26an, asteartean, 19:30ean hasita

A. Imaz Tolosa

PSE-EE alderdiak Juan Mari Jauregiren monolitoari egindako erasoaren inguruan, mozioa aurkeztu du hilaren 26ko ohiko osoko bilkuran eztabaidatzeko.

Tolosako hautetsi guztiak 19:30erako deituak daude, Tolosako udaletxeko bilkura aretoan egongo den batzarrera. Mozioaz gain, gai zerrendako beste bederatzita puntu bozkatuko dituzte. Amaieran, erregu-galderen txanda izango da.

↓ Gai zerrenda

OSOKO BILKURA

- **Akta onartzea.** Lehen puntuan, 2011ko ekainaren 11ko Eratzeko Osoko Bilkurako akta onartzea proposatuko dute.
- **Dekretuen berri ematea.** Bigarren eta hirugarren puntuan hainbat dekretuen berri eman gongo dute.
- **2011/12ko ordenantza fiskalen aldaketa.** Laugarren puntua.
- **Trukea.** Tolosako Udalaren eta Elosegui y Aramburu, SAren arteko trukea onartzea.
- **Alondegia.** Seigarren puntuan, 12.1 Alondegia azpieroemuko Plan Bereziaren behin betiko onartzea.

- **Usabal kiroldegia.** Tolosako hiri ordenazioko Plan Orokorreko 25 Usabal Kiroldegia hirigintza esparruko xehetasun azterketa: behin-betiko onartzea.
- **Kondeko aldapa 11.** Tolosako hiri ordenazioko Plan Orokorreko 15 Bidebieta- Izaskun-Iparra-guirre-Kondeaneko Aldapa (bakoitiak) hirigintza esparruko 15.3. Kondeaneko aldapa 11azpi esparruko xehetasun azterketa onartzea.
- **Aviama Elkartea.** Udala Aviama Elkarteko kide izateko proposamena onartzea.
- **PSE-EEren mozioa.** Juan Mari Jauregiren monolitoari egindako erasoari buruz PSE-EEk aurkeztutako mozioa.

Habanera lehiaketan parte hartuko dute Hodeiertzekoek

Hodeiertz abesbatzak Torreviejan egiten den Nazioarteko Habanera Lehiaketan parte hartuko du, igandean

A. Imaz Tolosa

Igandean, hilaren 24ean, Tolosako Hodeiertz Abesbatzako kideak Torreviejan izango dira. Urtero Torreviejan ospatzen den Nazioarteko Habanera lehiaketan parte hartuko dute.

Honakoak dira Nazioarteko Habanera Lehiaketan abestu beharko dituzten obrak: F. Casanova egilearen *Corazón Torrevejense* izeneko obra; Torroba egilearen *La Niña Mercé* kanta; David Azurza Hodeitruk abesbatzako zuzendariaren bi obra, *Mañateriko habanera* eta *Ave Virgo Sanctissima* (2010. urteko Tolosako Nazioarteko Abesbatza Lehiaketako polifonia sailean abestu zuten kanta hau); eta bukatzeko Juan Pablo de Pablo egilearen *Cantos de boda bereber* abestia.

◉ aimaz@hitza.info



Hodeiertz abesbatzako kideak, emanaldi batean. HITZA

AHTren obren inguruko bilera deitu du udalak

Tolosako Udalak bi bilera deialdi egin ditu gaurko; bata, 19:00etan, izango da eta bestea, 19:30ean

A. Imaz Tolosa

Tolosako Udalak Abiadura Handiko Trenaren obrak direla eta bilera deialdia luzatu du gaurko. San Esteban auzoko lokaletan, Ferialekuan, jarri dute hitzordua, 19:30ean.

AHTren obrek Tolosako San Esteban, Torrea eta Montesque aldeko bizilagunei eragingo dizkieten eragozpenen berri emango dute udalak deitutako bilkura honetan. Auzotarrekin batera, Tolosako alkateak, herritar guztiak gonbidatu nahi izan ditu bertan parte hartzera.

Batzorde informatiboa

AHTren inguruko bilera baino orduerdi lehenago, 19:00etan, egongo du Tolosako Udalak eguneko bigarren bilera. Kasu honetan, Gizarte Politikak eta Osasuna batzordearen bilkuran parte hartzeko deia zabaldu dute. Bertan, batzordeko kideen aurkezpena egongo dute lehenik. Ondoren, funtzionamenduaren inguruan, eta programa nahiz proiektuen inguruan jardungo dira.

Iragarki laburrak

GALDUTAKOAK

■ **Diru zorroa.** Diru zorro bat aurkitu dute Amezketan. Galdu duenak dei dezala 615 97 95 66 telefono zenbakira (Kontxu).

Danborradaren zapia aurten, Bai Euskal Herriari ekimenari dagokio

Jai guztietan erabili ahal izateko elementua izatea nahi dute; ohiko lekuetan egongo dira salgai 5 euroren truke

Eneritz Maiz Villabona

Aurtengoarekin badira hiru urte santiotako herri danborrada berreskuratu zela. Danborrada herriarra izan da eta jende asko hartu izan du parte, eta horrela jarraitzea nahi dute antolatzaileek. Aurten, hilaren 24ean, 23:00etan, izango da Iraunkorra txaranga-ren laguntzarekin.

Danborradarako urtero zapi bat kaleratu izan dute. Danborradako kideek eta Remi Gogoan ekimenekoek, joan den urteko arrakasta ikusita, aurten haratago joan nahi izan dute. Danborradatik kanpo ere eskuratu daitekeen zapia izatea nahi dute, hau da, Santio jaietako zapi bihurtzea. Herriko jaietako zapi bihurtzea. Herriko jaietako zapi bihurtzea. Herriko jaietako zapi bihurtzea.



Santio jaietako zapia izatea nahi dute. HITZA

dien zapia izango da. «Hori betetzeko eragilei aukera eman nahi diegu, nahi duten mezua zabalatzeko» adierazi dute. Jaz Remi Gogoan ekimenarena aukeratu zen; aurreko urteko gertaerak izan zirela eta, haren irudia marraztu eta irabazi ekonomikoak jaso ziren.

Aurten, Bai Euskal Herriari

ekimenari dagokio aukeratzea. *Gora Santioak, 2011! Geurea, Euskal Herriari!!* izango da mezua. Bai Euskal Herriari ekimenak argi esan du herritar guztiak dardela jaietako zapia erostera gonbidatuta, eta ohiko lekuetan egongo dira salgai, 5 euroren truke. Bide batez, jai zorionsuak pasatzeko gombita luzatu dute.

VIII. Transernio pilota txapelketako finalerdiak jokatu dituzte

Partidak 10:30etik aurrera larunbatean eta igandean jokatu dituzte; irabazleak finalera pasako dira

E. Maiz Aduna

Dagoeneko erabaki dira VIII. Transernio Pilota Txapelketako finalerdiak, eta finala gero eta gertuago dago. Larunbatean eta igandean jokatu dituzte partidak 10:30etik aurrera.

Larunbatean, benjamin eta kadete mailako bina partida izango dira. Benjaminetan, lehen partidari, Añorga Bidegoianen aurka ariko da eta bigarrenen, Alkiza Intxurren aurka. Kadeteen mailakoetan berriz, lehena Intxurre eta Amezketa artekoa izango da, eta bigarrenen, Zizurkil eta Usurbil lehiatuko dira elkarren aurka.

Igandeko partidetan alebinek eta infantilek jokatu dute. Alebinetan, alde batetik, Intxurre eta Aduna eta bestetik, Intxurre eta Zizurkil arteko partidak izan-

go dira. Infantil mailan berriz, lehen partidari Intxurre Andoainen aurka, eta bigarrenen, Zizurkil Amezketa artekoa jokatu beharko du.

Partida hauek irabazleak finalerako txartela eskuratu dute, eta finaleko partidak abuztuaren 6an jokatu dira 18:30ean hasita.

Pasa den asteko emaitzak

Larunbatean infantilen mailako bi partida jokatu ziren. Intxurrek 9 tanto, eta Zizurkil 18 tanto egin zituen garaipena eskuratu, eta bigarrenen partidari, Amezketa 18 tanto egin zituen Andoain 9an utzi.

Igandean bost partida jokatu ziren. Benjaminetan, Zizurkil 5ean geratu zen Intxurren aurka hauek 16 tantora iritsiz. Alebinetan bi partida jokatu ziren; Adunak 14, Intxurrek 16 egin zuen, eta bigarrenen, Adunak 12 Zizurkil 16. Jarraian kadeteen mailako bi partida izan ziren. Zizurkil 22ra iristea lortu zuen Hernani 13 tantotan utzi. Azken partidari, Bidegoian 10 tantotan geratu zen, eta Usurbil 22tan.

Santio jaietan elkartasunik ez da faltako Berdura plazan

Urtero bezala Berdura plazan jarriko dute euskal preso eta iheslarien aldeko jantokia

Eredakzioa Villabona

Santio jaietan urtero moduan, euskal preso eta iheslariak gogon izango dituzte Villabonan. Txupinazoaren osteko brindisa, enkartelada eta afari herrikoiaz gain, Berdura plazan jarriko dute

euskal preso eta iheslarien aldeko jantokia. Jai guztietan zabalik egongo da.

Askatasunaren aldeko senide eta lagunengatik egitaraua prestatu dute. Dispersioak eragiten dituen gastuei aurre egin, eta preso eta iheslarien aldeko elkartasunaren gune irekia izango da Berdura plaza.

Bestalde, presoek eskubideen aldeko banderola balkoietan jartzeko deia luzatu dute. «Egin dezagun bidea, eskubide guztiak euskal presoak Euskal Herrira» aldarrikatuko dute.

↓ Egitaraua

UZTAILAK 24, IGANDEA

■ 12:15. Preso eta iheslarien aldeko brindisa plazan. Txupinazoa Etxeratek botako du.

UZTAILAK 25, ASTELEHENA

■ 19:30. Subijana etxetik, enkartelada ixila.
■ 21:00. Afari herrikoia, preso eta iheslarien alde, Berdura plazan.

'Gartxot, Itzaltzuko bardoa' zerura begira

Antzezlan plaza Berrian egingo dute larunbatean, 22:30ean; 100 herritar inguruk parte hartuko dute

A. Imaz Villabona

Villabonako 100 herritarrek *Gartxot, Itzaltzuko bardoa* kale antzerkia antzetzuko dute plaza Berrian, elizaren ondoan dagoen zabalgunean. Euskal Kantuzale Elkarteak sustatutako ekimen-

ari herriko eragile eta norbanakoek erantzun diote. Udalaren babesarekin hilabeteak daramatzate larunbateko ikuskizuna prestatzen. Hala eta guztiz ere, eurria egingo balu, bertan behera utziko dute kale antzerkia, hau da, ez litzateke Kiroldegian edo beste aterpe batean egingo. Kasu horretan, esan bezala, irailera arte atzeratuko lukete *Gartxot, Itzaltzuko bardoa* emanaldia.

22:30etan hasiko den ikuskizunera, herritar guztiak gonbidatu dituzte. Antzerkiak ordubete inguruko iraupena edukiko du.

berria bekak 2011

NORENTZAT:

- Unibertsitate titulua duten gazte esperientzia gabeentzat
- Prestakuntza teoriko-praktikoa jaso eta karrera profesionala bideratu nahi dutenentzat

Kazetaritza arloa: zortzi beka

Ezaugarriak:

- Zortzi hilabete eta erdi ko iraupena, urritik ekainera
- Astean lau eguneko jarduna
- 5.908 euroko diru laguntza
- BERRIAK Andoainen duen egoitza nagusian edo ordezkaritza

Zuzenketa-itzulpengintza arloa: beka bat

Ezaugarriak:

- Hamabi hilabeteko iraupena, urritik irailera
- Astean lau eguneko jarduna
- 8.340 euroko diru laguntza
- BERRIAK Andoainen duen egoitza nagusian

Eskaraz aurkeztuko azken eguna: 2011-09-08 • Eskara orria eta delalidia www.berria.info webgunean

Jarraitu Villabonako jaiak villabona-aiztondo.hitza.info webguneko Villabonako Santio Jaiak 2011 atalean.

Egitaraua, ekitaldietako argazkiak, bideoak...

TOLOSALDEKO ETIA LEITZALDEKO hitza

Kirola eta abentura, bat eginik udalekuetan

Abaltzisketa, Altzo, Amezketak, Baliarrain eta Orendaingo gazteak hainbat jarduerak egiten ari dira uztailean

Imanol Garcia

Ekimen berri bat jarri dute martxan uztaile honetan Alegialdeko bost herritan. Gaztetxoei zuzendutako udalekuak dira, kirola eta abentura uztartzen dituztenak. Bizi Biziki enpresak kudeatzen du udalekua eta Abaltzisketa, Altzo, Amezketak, Baliarrain eta Orendaingo haurrek parte hartzen dute.

Bizi Biziki enpresako Ekaitz Zubeltzuk koordinatzen du ekimena. «Horrelako herri txikietan zailltasunak dituzte udalekuak antolatzeke herrian bakarrik. Horregatik, bost herriak bat egitean, posible izan da egitasmoak aurrera egitea», azaldu du Zubeltzuk.

Bi txandatan egiten ari dira udalekuak. Uztailearen lehenengo bi asteetan zortzi eta hamar urte artekoak aritu dira, eta hileko azken bi aste hauetan hamaika eta hamahiru urte artekoak ari dira parte hartzen. Lehenengo txandan berrogei gazte aritu dira eta bigarrenengan hamabost daude.

Astean hiru egunetan elkar-tzen dira: astelehen, asteazken eta ostiraletan. Eta egun bakoitzean herri ezberdinetan egiten dituzte jarduerak. Abaltzisketan mendi ibilbidea eta zuhaitz parkean aritu dira. Altzon patinaje ikastaroa eta eskalada egin zuten atzo frontoian. Bihar egun osoko irteera dute, eta piragua ikastaroa egitera joango dira Urumea ibaira. Datorren astean, joko kooperatiboak egingo dituzte astelehenean Orendainen; asteazkenean eskalada egingo dute Amezketako Zazpi Iturrin. Eta azkeneko egunean, ostiraletan, egun osoko irteera egingo dute Donostiako ir-lara.



Atzo eskalada egiten aritu ziren Altzoko frontoian. HITZA

Orain artekoa «oso ondo» doala dio Zubeltzuk. «Horrelako gauza bat egiten den lehen aldia da eta gurasoen eta gazteen aldetik esperientzia oso ona izaten ari da». Herri ezberdinetako haurrak elkar ezagutzeko da udalekuen hel-

buruetako bat. «Gero haur horiek Alegialdeko Aralar Institutuan elkartuko dira DBH egiteko», azaldu du koordinatzaileak. Udalak ere egitasmoak izan duen erantzunarekin gustura daudela gaineratu du Zubeltzuk.

Irudia Alegia



ARRANTZAN IAIOAK

Alegialdeko Karmen festen barruan, Arrantza Txapelketa egin zuten benjamin eta infantil mailan. Benjamin mailan lehenengoa Jon Urruzuno izan zen, bigarrena Haritz Mayorga eta hirugarrena Lucia Aretxaga. Infantil mailan lehenengoa Beñat Lasa izan zen, bigarrena Gorka Urruzuno eta hirugarrena Mikel Carredano. Argazkian, parte hartu zuten hemezortzi arrantzazaleak. HITZA

San Inazio jaien aurrerapena, etzi

I. Garcia Altzo

San Inazio jaiei hasiera hilaren 29an emango bazaie ere, etzi, hilak 23, jai giroa nagusituko da Altzon. 09:30ean herriko umeen arteko eskalada egingo dute. 11:30ean gazte eta helduen txanda izango da. Ordu berean, herri-

ko umeen arteko toka txapelketa egingo dute pilotalekuan. 15:30ean, mus txapelketako sailkapena egingo dute Elordi elkar-tan. 16:00etan izena emateko epea amaituko da. 18:00etan, frontoi zahar-berrituan finalurrekoak jokatu dituzte. Ondoren zahagi ardoak izango da.

Asteburu betea, Joxean Tolosa Txapelketan

I. Garcia Amezketak

XXII. Joxean Tolosa Txapelketaren hiru jardunaldi jokatu dira asteburuan. Bihar 22:00etan, hiru partida izango dira: kadeteetan, batetik, Goenatxo (Azkoitia) eta Laka (Lasarte) eta Alduntzin (Burlata); gazteetan, Oria (Zaldibia) eta Santxez (Astigarraga). Etzi,

16:00etan kadeteetan, batetik, Chiapuso (Donostia) eta Olano (Areso) eta bestetik, Larunbe (Huarte) eta Ibarrodo (Arrankudiaga); nagusietan, Muguruza (Bergara) eta Arzelus (Donostia). 22:00etan, kadeteetan, Garaio (Lizarrar) eta Mujika (Tolosa); gazteetan, Murgiondo (Hernani) eta Zabala (Alegi); nagusietan, Jauregi (Zarautz) eta Aldape (Mallabia).

FUNERARIA VASCONGADA EHZORZKETAK

Kondeko aldapa, 5
www.funerariavascongada.com

Gertu...
TOLOSAKO
HILETA ZERBITZUAK
BETI LATORKI BULABEA

24 H..

943 670 040

→ Laburrak**Ardo dastatze ikastaroa egongo da urritik aurrera**

LARRAUL › Aiztondo Zerbitzuen Mankomunikateak ardo dastatze ikastaroa antolatu du datorren urrirako Larraulen. Katilu-Txulo elkartearen elkartean izango da ikastaroa. Prezioa 20 eurokoa izango da. Bihar, hilak 22, eman daiteke izena ikastaroan parte hartzeko. Horretarako Aiztondoko bulegoetara joan behar da, edo 943 69 39 30 telefonora deitu behar da.

Liburutegia itxita egongo da abuztuaren

ADUNA › Liburutegia itxita egongo da abuztuaren letik 29ra. Abuztuaren 30etik irailaren 6ra astearte eta ostiraletan egongo da zabalik. Asteartean 08:00etatik 15:00etara egongo da zabalik, eta ostiraletan 11:00etatik 13:00etara.

Gas mozketa egingo dute abuztuaren 22an

ADUNA › Adunako udalak abuztuaren 22an gas horniduraren mozketa izango dela jakinarazi du. Mozketa 14:30etik 18:30era luzatuko da.

Olano eta Pellejero II. mailako txapelketan

LEITZALDEA › Igande honetan, 19:00etatik aurrera Nafarroako bigarren mailako Aizkora Txapelketako kanporaketa jokatu-ko da Elizondoko Iriarte pilotalekuan. Bertan 11 aizkolarik parte hartuko dute, horien artean Arkaitz Olano leitzarra eta Asier Pellejero aresoarra. Aizkolariek bi kanaerdiko eta 60 ontzako bat motu beharko dituzte. Lana lehen postuetan bukatzen duten 5 aizkolariek finalerako txartela lortuko dute. Finala Uharte-Iruñean jokatu da irailaren 25ean.



Pasa den asteburuko lasterketan, Koldo Alonso 5. geratu zen Series 600 mailan. HITZA

Alonso erregulartasuna erakusten ari da Zona Norte Txapelketan

Udan atseden hartzeko aukera izango du gidari ibartarrak; hurrengo lasterketa irailaren 3an izango da Nafarroan

M. Ugartemendia Ibarra

Ibarra Racing taldeko Koldo Alonso gidariak Zona Norte Txapelketako 3. lasterketan izan zen pasa den asteburuan. Lasterketa Alcañizeko zirkuituan (Teruel) egin zen, eta bertan Alonso ibartarra 5. sailkatu zen Series 600 mailan.

Kronometratuetan haize indartsua aurkitu zuten lasterketa honetan parte hartu zuten 32 gidariak. Honek, sailkatzeko den-

bora onak lortzea asko zaildu zuen eta aurrean ibili ohi diren gidarien artean erorketa asko eragin zituen. Alonsok, aldiz, «kontu askorekin» eta «gehiegi arriskatu gabe» irteerarako 12. postua lortu zuen, 7.a bere mailan.

Lasterketa abiatu zuen anean haizea «oso indartsu» zebilen eta horrek gauzak «oso zail» jarri zizkieten gidariei lehenengo itzulietan, eta gainera, borroka «gogorra» ikusi ahal izan zen. Alonsok maila bereko bi gidariekin lehia behar izan zuen lasterketaren aurreneko zatian. Bi postu horiek irabazi ondoren, bere erritmoan aurrera jarraitu zuen aurrean zuten taldera iritsi arte, baina, podiumeko ateetan geratu behar izan zuen 3. eta 4. sailkatuak bere aurretik 3 segundotara pasa bai-

tziren helmugatik. Honela lasterketako 9. postua lortu zuen, eta bere mailan 5. sailkatu zen.

Atsedena irailera arte

Asteburu honetako emaitzaren ondoren, Zona Norte Txapelketako sailkapen nagusiko 2. posturaino igo da Alonso Series 600 mailan. Amaitzeko 2 lasterketa falta direnean, Alonsok erakutsi du oso garrantzitsua dela lasterketa guztietan erregulartasunez puntuak irabazten joatea.

Hurrengo lasterketa irailaren 3an izango da Nafarroako Los Arcos Zirkuituan. Txapelketa honetan parte hartzen ari den Alonsoren motorra ikusi nahi duenak, hori egiteko aukera izango du Azkain Motoak dendan irailaren 3ko lasterketara arte.

Gobernuak abeltzainen inbertsio zorra ordaintzen lagunduko du

Jada emanda dauden eta hemendik aurrera emango diren maileguetara 300.000 euro bideratuko dituzte

M. U.

Nafarroako Gobernuak 300.000 euro emango ditu Foru Erkidegoko abeltzainen euren ustiatze-tako inbertsioen zorrak ordaintzeko, diru laguntza gisa.

Laguntza horien artean kokatzen da maileguak lortu ahal izateko bermea ordaintzeko diru laguntza. Berme hori eskatutako diru laguntzaren %1,5 izatera iritsi daiteke. Gainera, Nafarroako Gobernuak bi urtetan interesen 3 puntu ere finantzatu ditu. Hau da, abeltzain bati %4eko interes duen mailegu bat ematen badiote, lehenengo bi urtetan interesen %1a soilik ordainduko dute. Gainerako Foru Gobernuak hartuko du beregain.

Bestalde, emanda dauden maileguak bere horretan izoztu egingo dituzte: abeltzainen euren ustiatzei hobetzeko planetarako maileguak jasotzen dituztenean, Gobernuak bi urtetako gabezia finantzatuko du.

Sektorerako laguntzak

Zerealen eta pentzuen igoerari aurre egiteko planen barruan kokatu behar dira Nafarroako Gobernuak emandako diru laguntza hauek. Ekoi-zapenaren kostuek nabarmen egin dute gora, baina igorera horrek ez die berdin eragin produktuen prezioei. Gauzak horrela, zenbait abeltzain ordaintzen etetean sartu dira.

Laguntza hauez gain, Nafarroako Gobernuak beste laguntza batzuk ere martxan jarri ditu nekazarien sektoreari laguntzeko.

• leitzaldea@hitza.info

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena

Alkateen elkarrizketak →

Unai Iraola ◊ Alegiako alkatea

Alkate karguak dituen funtzioei ohitzen ari da Unai Iraola, baina garbi du alkatetzak ez duela «presidentzialista» izan behar eta herritarren parte hartzea espero du udalaren jardunean. Bilduk herrian zein eskualdean lortutako emaitzak nabarmendu ditu.

«Politikak auzolanean egindakoa eta parte hartzailea izan behar du»

Imanol Garcia Alegia

Unai Iraola (Alegia, 1983) da Alegiako alkate berria. Aurretik kargurik hartu gabekoa, Bilduren zerrendan aurkeztu zen. Zazpi zinegotzi lortu zituen Bilduk eta bi zinegotzi EAJk.

Nolatan aurkeztu zinen zerrendaburu?

Laguntzeko asmoarekin sartu nintzen, eta testuinguru politikoa hala behartuta, zerrendaburu joateko eskaera egin zidaten. Gogoeta egun batzuk pasatu ondoren, erabakia hartu nuen.

Aginte makila hartzerakoan, zer sentitu zenuen?

Sentsazio arraro samarrak. Oraindik aginte makila hartu nuenean ez nintzen erabat kontziente Alegiako alkate izango nintzela. Dena zurrumbilo bat bezala izan da, bai azken unera arte ez genekielako legalak izango ginen ala ez, eta baita zerrendaburu joateko erabakia oso denbora gutxian hartu behar zelako. Beraz, erabat barneratu gabe hartu genuen aginte makila.

Eta orain zer, pixkana ohitzen alkate kargura?

Hasieran hori da, ohitzea. Ekainaren 14an hasi nintzen udaletxean lanean. Bertan goizero egoten naiz, eta azkenean, eguneroko martxan, gehiago barneratzen duzu alkatearen funtzioak zein diren, zer gai dauden mahai gainean... Udaleko teknikariek hitz eginez eta galdetuz, eta batez ere asko entzunez, eguneroko funtzionamendua zein den barneratzen duzu. Hilabete batean ez duzu izaten argazki osoa, baina laneko dinamika berarekin aginte makila hartu zenuenean baino gehiago asimilatzen duzu kargua.

Egunerokoan hainbat gai tekniko izango dira egin behar direnak, kanpotik hainbeste ikusten ez diren horiek.

Batez ere, aurretik kargu hauean edo antzekotan aritu ez bazara, zailtasun handienetakoa hori izaten da, gai teknikoak direlako. Gainera hasieratik etortzen da jendea eskaerak eginez, eta jakin egin behar duzu nola diren gauzak. Horretarako denbora behar da eta asko hitz egin behar duzu



I. GARCIA

teknikariek. Asko laguntzen dute. Alkatetzaren zereginetan alde tekniko hori ikusten ez dena da, baina, gero, egunerokotasunean, agian gehien eskatzen duen aldea hori da. Aspektu asko dira, lege asko kontuan izan behar dira.

Hauteskundeetan lortutako emaitzen inguruan zer irakurketa egiten duzu?

Herri mailan, Alegian, bederatzitik zazpi zinegotzi lortu ditugu. Bozka kopuruei dagokionez, 640 bozka izan ditugu. Oso zerrenda bozkatua izan da, espero baino bozka gehiago jaso ditugu. Beraz, esker hitzak besterik ez ditugu herritarrentzako. Bestalde, horrek ekartzen duen ardura kontuan hartzen dugu, jendeak esperantzak jarri dituelako proiektu berri honetan. Beste aldetik, kontziente gara oposizioan dagoen EAJk emaitza hobetoak ez dituela lortu, zerrenda herritik kanpoko pertsonekin osatu dutelako. Herrian beste sentsibilitate

bat badagoela kontziente gara. Esan diegu EAJko zinegotziei, lanerako borondatea baldin badute, eta errespetuz eta lankidetzarako gogoekin badatoz, guk ez ditugula ateak itxita. Baina, kontua da, herriak sekulako aukera eman digula berriro lan egiteko, eta hori aprobetxatu egin behar dugula.

Eta eskualde mailan izandako emaitzei buruz zer irakurketa egiten duzu?

Bilduk eskualde mailan izan dituen emaitzak oso onak izan dira, eta Tolosan lortutakoak azpimarratzekoak dira. Egin beharreko irakurketa da eskualdean, herritarrek, elkarlanerako, adostasunerako eta elkarrizketarako eskaera egin dugutela. Tolosaldeak dituen ezaugarriengatik, herri txikiak eta landagune asko, behartzen gaitu batera lan egitera. Eta izan ditugun emaitzek aukera polita ematen dute horretarako. Tolosaldea eskualde bezala baldintza hobegotan egoteko.

Zer iritzi duzu aurreko udalak egindakoaz?

Oso positiboa, batez ere, kontuan izanik egoera antidemokratiko batean egon gara. Ezker abertzaleak ez du ordezkaritza legalik izan, eta testuinguru horretan nahiko isolatuta egon gara, Alegiako Udalan ezker abertzalea egon baita. Hori kontuan izanik, eta horrek ekarri zezakeen zailtasunak ikusita, guretzat oso lan positiboa egin dute, eta beraiek martxan jarritako proiektuak kudeatzen ari gara eta etorkizuneko ildo bereko politikak martxan jaritzeko asmoa dugu.

Zer asmo dituzue legealdi honetarako?

Asmoetako bat plan orokorra da. 1996tik ez da berriro. Guri iruditzen zaigu alegitarren etorkizuna finkatuko duen plan orokor egokibat burutu behar dugula lau urte hauetan. Proiektu zehatzetara joanik, osasun etxe berri baten beharra ikusten dugu, eskaera hor dagoelako, baita egungo osasun

etxe bertatik ere. Gero, jarduera industrialia bultzatzea Bazurka industriagune berriaren garapena kontutan hartuta. Bestalde, aurreko udalaren ildotik, animazio soziokulturalaren jarraitzea, gizarte zerbitzuak orain arteko baldintza berdinetan mantentzea eta ahal bada gehiago garatzea. Egungo zentro bat ere aurreikusita dago. Komertzioa ere bultzatu nahi da. Hortik aurrera, herritarrek eskatzen dutenaren arabera eta dauden beharrak ikusiz lan egitea pentsatzen dugu.

Plan orokorraren egoera nolako da? Tramitazio fasean dago. Zehaztasun fase batean sartzea falta zaio, eta gaur egun legeak eskatzen dituen baldintzak betetzea eta osatzea. Lau urteotan dugun erroketako bat hori izango da. Garbi dugu onartuko dugun plan orokorrak etorkizuna finkatuko duela, eta beraz, garrantzi handia ematen diogu.

Osasun etxeari dagokionez, zein da asmoa? Oraingoa berritzea, beste kokaleku bat bilatzea...

Aukeran beste kokaleku bat aurreikusten dugu. Egungo eraikinaren ezaugarriengatik, bai irisgarritasunagatik, eta bai duen tainagatik, txikia eta zaharkitua gelditu da. Osasun etxetik ere eskaera egin dute beste kokaleku bat bilatzeko. Ideia batzuk baditugu, Franconi Fundazioaren eraikina, adibidez. Abuztuan bertan dauden mojek etxea utzi egin behar dute, eta, beraz, hutsik geldituko da. Hitz egiteko asko dago, baina kokaleku egokia izan daiteke osasun etxerako.

Udalaren funtzionamenduari buruz, zer planteamendu duzue?

Lehenengo osoko bilkura egin genuenean, batzorde antolatuntza eta bertako partaideak zeintzuk izango ziren zehaztu genuen. Guz-tira sei batzorde daude, eta bertan daude Bildukoak zein oposizioko kide bat. Garbi dugu, nahiz eta eskumen nagusia ordezkaritza politikoen izan, batzorde irekietan funtzionatuko dugula. Gure nahia da ahal den jende gehienak parte hartzea, herritarrek horrela ere erantzukizuna hartzen dutelako. Politikak ez du behar alkatearen figura presidentzialistatik. Politikak parte hartzailea eta auzolanean egindakoa izan behar du. Batzordeen funtzionamendua ehuneko ehunetan irailan hasiko dela aurreikusten dugu.

Oraintxe izan dituzue festak herrian. Zer balantze egiten duzu?

Balantze positiboa egiten dugu. Eguraldiaren aurreikuspena nahiko ezegokia zen, baina azkenean errespetatu digu. Eta, egia esan, nahiko jendetsuak izan dira festak. Ostiral eta larunbat gaueko kontzertuek jendea erakarri zuten, eta egunezko ekitaldietan beti jendea egon da eta herritarren parte hartzea handia izan da. Orokorrean giroa ona izan da.




Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.M.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1.687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info.
Webgunea: tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@bidera.eu.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info.
Ibarra: 687 410 118. ibarra@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak
S.M.ko kideak:**



eta Tolosaldeko
eta Leitzaaldeko
beste 77 eragile



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:
Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezketeta, Anoeta, Areso, Baliarrain,
Belauntza, Berastegi, Elduain, Herrialdea, Irura, Leitza, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Agurrak

AGURRAK
943-65 56 95
tolosaldean@hitza.info

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

agurrak

Emakumea etxe bilakatzen du Delgadok bere margolanetan

Alegiako Jubilatuen tabernan 12 lan bildu ditu Tolosan bizi den margolari andoindarrak

Rebeka Calvo Alegia


Alegiako Jubilatuen tabernan beste erakusketa bat ikusi daiteke hilabete honen bukaera arte. Naiara Delgadoren margolanak dira, 12 guztira, eta guztietan etxearen ideia landu du margolariak.

Bitan banatzen ditu lanak: akuarela bidez egin dituen ilustrazioak, bost koadro txiki, eta akrilikoak diren beste zazpi, handiagoak direnak. Guztietan etxearen ideia landu du Delgadok: «Orain 10 urte edo hasi nintzen etxearen ideia lantzen. Erakusketa honetan, batetik *Etxe emakumeak* multzoko lanak ditut, hau da, emakumea etxea balitz bezala margotzen dut. Puntu feminista bat dute. Bestetik, giza itxura duten lanak ditut, baina hauek ere etxearen ideia da nagusi».

Surrealismoa landuz

Delgadoren margolanak figuratiiboak dira, baina surrealismo kutsukoak, irudimena aske uzten du, eta etxearen ideietik abiatuta, lan koloretsu eta bereziak egiten ditu.

Erakusketa hau bera, Urre-txun izan zuen ikusgai, eta baita Tolosako Lanbroa tabernan ere, horregatik azaroan Tolosako Fronton kafetegian jartzekoa den erakusketarako beste margolan batzuk egiten ari da orain Tolosan bizi den andoindarrak. «Lan



Hilabete bukaera arte ikusi daitezke lanak. HITZA

handiak ari naiz egiten, beti ere orain arteko ildo jarraituz», azaldu du.

Jubilatuen tabernara gertura-

tzen denak, margolanak ikusteaz gain, etxeratu ahal izango dituzte, salgai baitaude. Bertan daude lanen salneurriak.

Agenda

DEIALDIAK

- **Leitza.** Atekabeltz gaztetxearen 6. urteurrena dela eta, gaur 20:00etan *Sagarraren denbora* bideo proiektioa.
- **Ibarra.** Festa Batzordearen bilera egingo dute gaur, 19:30ean udaletxeko batzar aretoan..
- **Berastegi.** Abuztuaren 5eko herri afarirako txartelak eskuratu daitezke jada, Urepele eta Basurde elkarteetan, zein Zelai tabernan. 12 urtetik beherakoek 9 euro ordaindu beharko dute, eta gainontzekoek 17 euro.

ERAKUSKETAK

- **Tolosa.** Menchu Gal margolariaren erakusketa irailaren 10a bitarte Aranburu jauregian.
- **Tolosa.** Binefarreko titiriteroaren erakusketa Topic-en urriaren 2a bitarte. Irailak 30 arte udako ordu egian bisitatu ahal izango da, hau da: lanegunetan 11:00etatik 14:00etara, eta 16:00etatik 20:00etara; eta asteburuetan 11:00etatik 14:00etara, eta 16:00etatik 21:00etara.
- **Larraul.** Pisuak eta balantzak biltzen dituen erakusketa ikusi daiteke Ekomuseoan, iraila arte.

Farmaziak

GAUR

- **Tolosa.** Etxebeste, J. M. Gernikako Arbola, 3. 943 65 10 45.
- **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia, 112.
- **Irurtzun.** Gastearena, M. Amaya kalea, 112.

HITZAk ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanenen eta iritzien erantzukizunik.

Erakusketa zerbitzu berrira martxan!
Erakusketa, labe proposatzen.

KONTUTAN HARTU BERE ADIMENA

**EREMU
HANDIETARAKO
DISEINATU DUGU**

TOLOSA MOTOR, S.A.
PEUGEOT KONZESIONARIOA
San Esteban auzoa, 14-A • 20400 TOLOSA

Tel.: 943 650 337 / Faxa: 943 652 938
tolosa@tolosa.redpeugeot.com

P-508 SW
BERRIA